



Tokiko Gobernu batzarrak, 2019ko ekainaren 3an egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

**8.- ADINEKO PERTSONA AUTONOMOENTZAKO ZUZKIDURAZKO BIZITOKIAK ALOKAIKUAN ESLEITZEKO ZOKKETARAKO BEHIN BETIKO ZERRENDA.** - Adineko pertsona autonomoei zuzkidurazko bizitokiak alokairuan esleitzeko onartu eta baztertuen behin behineko zerrenda 2019ko maiatzaren 7n argitaratu zen, alkate dekretu bidez (2019/0822), udalaren web orrian eta iragarki taulan.

Alegazio epea bukatuta, ez da inolako alegaziorik aurkeztu, beraz, onartuen behin betiko zerrenda onartu behar da, eta era berean, zozketarako data eta ordua ezarri.

Horren inguruan egindako txosten juridikoa ikusita eta hautaketa prozesua arautzen duen oinarrien 4. artikulua arautzen duenarekin bat etorritz.

Ondare eta Kontratazio Saileko Txostena ikusirik.

Aztertu da Ogasun eta Ondare - Kontuetarako Batzordeak 2019ko maiatzaren 28an emandako irizpena.

Aho batez erabakitzen da:

**Lehen.**- Adineko pertsona autonomoei zuzkidurazko bizitokiak alokairuan esleitzeko prozesuan, hautagai onartuen behin behineko zerrenda, behin betikoz onartzea eta zozketarako bakoitzari zenbaki bat ematea. Zerrenda honakoa izanik:

Sarrera Erregistroa	NAN	ZOKKETARAKO ZENBAKIA
2104	15160585C	1
2138	15150751F	2
2140	07033238E	3
2146	15160850D	4

**Bigarrena.**- Zozketaren eguna, 2019ko ekainaren 10ean, eguerdiko 13:30tan Udaletxeko Pleno Aretoan.

**Hirugarrena.**- Zozketaren emaitzan ondoren, esleitu gabe geratu direnen artean itxaron zerrenda osatuko da.

Eta horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzitarako epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c artikulua, (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Hernanin, 2019ko ekainaren 4an.

IDAZKARIORDEA,

